

4/2015 UDALEKO OSOKO BILKURA

2015EKO EKAINAREN 11EAN IZANDAKO OHIZ KANPOKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Estanga Lasa

ZINEGOTZIAK:

Izaskun Jáuregui Saizar
Aitor Gurrutxaga Aranzasti
Aratz Luisa Urkola
Miren Josune Eizmendi Manterola
Mikel Ayerbe Gallurralde
Maialen San Sebastian Kortajarena
Kepa De la Iglesia Sanchez
M^a Carmen Egurza Salaberria

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoeta Hiriko udaletxean, 2015eko ekainaren 11ean arratsaldeko bosterdietak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohikanpoko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean, Alkateak dio eta Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea, Idazkari lanetan aritu naiz.

1.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2015EKO APIRILAREN 17TIK EKAINAREN 8A BITARTE, 124 ZENBAKITIK 274 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

2015eko apirilaren 17tik ekainaren 8a bitarte, 124 zenbakitik 274 zenbakira biak barne, bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, Korporakideek jakinaren gain geratuz.

2.- 2015KO MAIATZAREN 21EKO ERABAKIA BERRETSI ETA ALKATEARI AHALMENA EMAN HITZARMENA SINATZEKO.

Anoetako udal erroldaren lagapenari buruz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eta Anoetako Udalaren arteko Lankidetzeta Hitzarmenaren espedientea ikusirik.

2015.05.21eko ondorengo alkate ebazpena ikusiirik:

“DEKRETUA.- Anoetan, 2015eko maiatzaren 21ean.

2015eko maiatzaren 5ean Irma Domingorena andreak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzatik, hurrengo hitzarmena bidali zuen Anoetako Udalak onartu dezan:

*“Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eta Anoetako Udalaren arteko lankidetz hitzarmena, Anoetako udal eroldaren lagapenari buruzkoa **mugi txartelerako.**”*

Hitzarmena sinatzeko arrazoia eta helburua hurrengoa da:

Mugi garraio publikoko txartela eskuratu nahi duten erabiltzaileak Gipuzkoako Udalerriren batean erroldaturik daudela egiaztatzea. Aipaturiko baldintza ezinbestekoa baita talde berezien txartelaren titularra izan eta zenbait hobari eskuratzeko eskubidea izateko.

Kontuan harturik 2015eko maiatzaren 12ko AOT ren txostena.

Dagozkidan eskuduntzaz baliatuz, HONAKOA EBATZI DUT:

Lehena.- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren eta Anoetako Udalaren artean lankidetz hitzarmena sinatzea, Anoetako udal eroldaren lagapenari buruzkoa, mugi txartelerako.

Bigarrena.- Ebazpen hau berrestea Udalbatzak egingo duen hurrengo bilera arruntean.

Horrela agindu eta sinatu du Pedro M^a Esanga Lasa alkate jauank; eta neuk, idazkariak, fede eman”.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehena.- Aipaturiko lankidetz hitzarmena eta bere eranskina onartu zuen 2015.05.21eko alkate ebazpena berrestea; akta honi 1. eranskin modura atxikita jasoz hitzarmena eta bere eranskina. - Gipuzkoako udalerrira batean erroldaturik egoteko betekizunaren egiaztatpena.

Bigarrena.- Alkate-Lehendakari jaunari edo bere legezko ordezkariari ahalmanea ematea akordio hau burutzeko beharrezkoak diren agiri publiko edo pribatu guztiak sinatzeko.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko seiak hogeit gutxi direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.